Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6353

AGINDUA, 2009ko azaroaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Santurtziko (Bizkaia) «San Francisco Javier» Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen duena.

Santurtziko (Bizkaia) Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako «San Francisco Javier» ikastetxe pribatuko titular Ana María Magra Cortadi-ren oinordekoek ikastetxe horren titulartasuna aldatzeko baimena eskatuz abiarazitako espedientea aztertu da.

Espedientea Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarrean dagoen araudiak eskatutako agiriak erantsi zaizkio eta gai horretan eskumena duten erakundeek beren txostena egin diote.

Ikusi da araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE), bai eta gai horretan aplikatzekoak diren indarreko gainerako xedapenak ere. Horiek horrela, ondokoa

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Titulartasuna aldatzeko baimena ematen zaio «San Francisco Javier» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari. Ikastetxearen kodea: 48007201. Helbidea: José Miguel de Barandiarán kalea, 29, Santurtzi (Bizkaia). Ana María Magra Cortadi andrea izan du titularra. Aurrerantzean, «San Francisco Javier Ikastetxea SL» entitatea izango da, eta horrenbestez, Ana María Magra Cortadi andrea aitortu zaion ikastetxeari dagozkion betebehar eta eskubide guztietan subrogatuta gelditukо da.

2. artikulua.– Titulartasun aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da. Horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu Agindu honek.

Bigarrena.– Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldiz-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6353

ORDEN de 2 de noviembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el cambio de titularidad del Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «San Francisco Javier» de Santurtzi (Bizkaia).

Examinado el expediente iniciado por los herederos de Ana María Magra Cortadi, titular del Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «San Francisco Javier» de Santurtzi (Bizkaia), en solicitud de autorización para el cambio de titularidad de dicho centro.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia, que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Visto el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril (BOE del 9), sobre autorizaciones de centros docentes privados para impartir enseñanzas de régimen general no universitarias, y demás legislación vigente aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza el cambio de titularidad del Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «San Francisco Javier», con n.º de código: 48007201, y con domicilio en la calle José Miguel de Barandiarán, n.º 29, del municipio de Santurtzi (Bizkaia), ostentada por Dña. Ana María Magra Cortadi, que en lo sucesivo lo será por la entidad «San Francisco Javier Ikastetxea, S.L.», quedando ésta subrogada en la totalidad de las obligaciones y derechos que afecten al centro cuya titularidad se le reconoce.

Artículo 2.– El cambio de titularidad se inscribirá en el Registro de Centros Docentes y el mismo no afectará al normal funcionamiento del Centro.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día 1 de enero de 2010.

Segunda.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguien-

karian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 2a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

te al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de noviembre de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.